



Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2012ko urtarrilaren 26ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- Honako puntuen **berri eman da**: 1.1.- Tonerrak/sakelakoak biltzeko zerbitzua, elebitasuna edukiontzietan; 1.2.- Ekoeraginkortasun programa; 1.3. Etxe Berdeak; 1.4. Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planen berrikusketa; 1.5. Adierazleen ebaluazioa eta kalkulua; 1.6. Mugikortasun Iraunkorraren 2012ko Aste Europarra; 1.7. Ibaialde eta Azterkosta erakusketak; 1.8. Laguntza eskaera BFaren Ingurumen Sailari, Tokiko Ekintza Planetarako (Tokiko Agenda).
- **2012ko Ekintza Plana eta Kudeaketa Plana**: Amaierako onarpena, hurrengo bileran.
- **Jatorri industrialeko Isurpen Fokuen Inbentarioa egiteko lehiaketa**: Oniritzia eman zaio laguntza teknikoa kontratatzeko lehiaketa abian jartzeko espedientea hasteari.
- **Bulegoaren komunikazio kanpaina**: Oniritzia eman zaio Eskualdeko Bulegoaren eta bere zerbitzuen aurkezpen publikorako ekitaldiaren planteamenduari.
- **Olio biltzeko zerbitzuaren kontratua berritzea**: Urte bakar batez berritzeko epeari eustea onartu da.
- **Arropa biltzeko eskualdeko zerbitzuaren proposamena**: Kontratazio bateratua, zenbait salbuespenekin, onartu da, eta kostu hau 2012ko Kudeaketa Planaren kuotari gehitu zaio. Kontratazio lehiaketa abiarazi da.
- **Energiaren eta telekomunikazioen kudeaketa partekatuari buruzko bilera**: urtarrilaren 31n, 09:00etatik 10:00etara.
- **Batzordearen hurrengo bilera**: otsailaren 23an, osteguna, 09:00etatik 10:30era. Ondoren, bulegoaren eta bere zerbitzuen aurkezpen publikorako ekitaldia egingo da, 11:00etan.